

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3716

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 29koa, Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren idazkari nagusiarena, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzeko beken deialdia egiten duena, 2025-2026rako.

Martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuak sortu eta arautzen du Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitate-tituludunak prestatzeko beken programa (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 65. zk., 2023ko apirilaren 3koa), 2030 Agendaren esanahiaren hedapena hobetzeko, eta gizartea Garapen Jasangarriaren Helburuek adierazten duten eraldaketan txertatzeko mekanismo izan dadin.

Dekretu horren 5.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da Gizarte Trantsizioaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitateko tituludunak prestatzeko beken deialdia egitea 2025-2026rako. Beka horiek Lehendakaritzaren dirulaguntzen 2024-2027 Lau Urteko Plan Estrategikoan sartuta daude. Plan hori Gizarte Koordinazio eta Komunikazioko idazkari nagusiaren 2024ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez onartu zen, eta honako helbide honetan argitaratu zen: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/-/proiektua/lehendakaritzaren-2024ko-diru-laguntzen-plan-estrategikoa/>. Deitutako bekek Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan gizartea zabaltzen eta herritarrak inplikatzeko laguntzen dute, eta hori da plan horretan jasotako helburu estrategikoetako bat.

Horrenbestez, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.— 2025-2026rako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitateko tituludunen prestakuntza sustatzeko bi beka emateko deialdia egitea.

Deialdia honako hauetan xedatutakoaren arabera arautuko da: 34/2023 Dekretua, martxoaren 21ekoa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitate-tituludunak prestatzeko beken programa sortu eta arautzen duena, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko organo berari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoa betez.

2025eko irailaren 2a, asteartea

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Denek jakin dezaten, www.euskadi.eus webgunean ere argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 29a.

Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren idazkari nagusia,
ION MUÑOA ERRASTI.

I. ERANSKINA

OINARRIAK

Ebazpena, 2025eko uztailaren 29koa, Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren idazkari nagusiarena, unibertsitate-tituludunak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan prestatzeko beken deialdia egiten duena 2025-2026rako.

Lehenengoa.– Xedea.

Deialdi honen xedea da bi beka ematea unibertsitate-tituludunen prestakuntza bultzatzeko Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan, 2025-2026rako.

Bigarrena.– Diru-zuzkidura.

1.– Deialdiko beka-programaren guztizko kreditua 36.785,52 eurokoa da; horietatik 11.149,28 euro 2025eko ordainketa-kredituei dagozkie, eta 25.636,24 euro 2026ko konpromiso-kredituari.

2.– Beken diru-hornidura 17.500 euro gordinekoa izango da. Bekaren zenbatekotik kenduko dira, hala badagokio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) atxikipenak eta konturako ordainketak, zergaren araudia aplikatuz gero.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

1.– Martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuan eskatutako betekizunak betetzen dituzten pertsonak bitarteko elektronikoak besterik ez dezakete erabili prozedura honetako izapideak eskatu, kontsultatu eta egiteko.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta aurkeztu beharreko agiriak telematikoki izapidetzeko zehaztapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/1232103>

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eskabide normalizatu baten bidez egingo da eskaera, behar bezala beteta: <https://www.euskadi.eus/servicios/1232103>

Nork bere burua identifikatzeko eta eskabideak sinatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoak erabili behar dira, helbide honetan eskuragarri daudenak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

4.– Eskatzaileak ordezkari baten bidez ere egin dezakete izapidetze elektronikoa. Horretarako, ordezkaritza Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Ordezkarien Erregistroan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

5.– Eskabidearen osteko izapideak bide elektronikoz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Administrazioak dirulaguntzak ordainduko baditu, onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du.

Alta emateko edo hirugarrenaren datuak aldatzeko, interesdunak Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenen erregistro elektronikora jo beharko du, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datu-aldaketa/>

Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

6.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Hautaketa Batzordea.

Martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuaren 10. artikuluan aipatzen den Hautaketa Batzordea, merezimenduak baloratuko dituen, honako pertsona hauek osatuko dute:

– Asier Aranbarri Urzelai, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren zuzendaria; batzordeburua izango da.

– Jorge Berroci Samaniego, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzako teknikaria; bokal izango da.

– Carolina Aguirre Mastrángelo, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzako teknikaria; batzordeko idazkari-lanak egingo ditu.

Bosgarrena.– Onuradunen betebeharrak.

Beka hauen onuradunek martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuaren (Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuan unibertsitate-tituludunak prestatzeko beken programa sortu eta arautzen duena) 15. artikuluan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Seigarrena.– Onuradun izatea galarazten duten egoerak.

Ezingo dira beken onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako egoeraren batean daudenak.

Zazpigarrena.– Prozedura kudeatzeko eta ebazteko eskumena duten organoak.

Martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuaren 14. artikulua araberak (dekretu horren bidez, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuan unibertsitate-tituludunak prestatzeko beken programa sortu eta arautzen da), Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzari dagokio dekretu honetan aurreikusitako beka kudeatzeko lanak egitea. Horretarako, Zuzendaritza horrek gainbegiratu eta zuzenduko ditu bekadunen jarduerak.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuan unibertsitate-tituludunak prestatzeko beken programa sortu eta arautzen duen martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuaren 13. artikuluan xedatutakoaren araberak, Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren Idazkaritza Nagusiaren titularrak, instrukzio-organok helarazitako behin betiko ebazpen-proposamena ikusita, dagokion esleipen-ebazpena emango du.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko organo berari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zortzigarrena.– Emakidak jakinarazteko eta argitaratzeko bidea.

Martxoaren 21eko 4/2023 Dekretuak (Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuan unibertsitate-tituludunak prestatzeko beken programa sortu eta arautzen duenak) 13. artikuluan xedatzen duenez, esleipen-ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko da, gehienez ere sei hilabeteko epean, dagokion urteko deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori igaro eta ebazpenik argitaratu ez bada, eskabideak ezetsi egin direla ulertuko da.

2025eko irailaren 2a, asteartea

II. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA

Izen-abizenak:

NAN / pasaporteak:

Helbidea:

Posta elektronikoa:

Goi-mailako edo graduako unibertsitate-titulua:

Lizentziatura edo graduaren lortutako batez besteko nota (agiri bidez egiaztatu beharko da):

Hizkuntzak:

 Euskara: (*)Egiaztatutako maila: B2 C1 C2

(*) Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-tituluak eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuetsita egongo dira apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa betetzen dutenak (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestekoa).

 Ingelesa:Egiaztatutako maila: B1 B2 C1 C2 Beste hizkuntzak:Egiaztatutako maila: B1 B2 C1 C2

Genero-berdintasunaren arloko eta/edo indarkeria matxistaren aurkako prebentzioaren arloko prestakuntza (dokumentu bidez egiaztatu beharko da):.....

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- NAN edo pasaporteak.
- Errola-ziurtagiria, 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dela egiaztatzen duena.
- Goi-mailako edo graduako unibertsitate-titulua eta, hala badagokio, dagokion homologazioa.
- Egindako ikasketen ziurtagiriak, ofizialak eta balio akademikoa dutenak.
- Hizkuntza-ziurtagiriak, ofizialak eta balio akademikoa dutenak.

Administrazioak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak kontsultatu edo biltzea dela-eta, markatu dagokizun aukera:

BAI, baimena ematen dut instrukzio-organoak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak kontsultatu edo bildu ditzan.

EZ, dut baimena ematen instrukzio-organoak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak kontsultatu edo bildu ditzan.

ADIERAZTEN DUT betetzen ditudala martxoaren 21eko 34/2023 Dekretuaren 2. artikuluko eskakizun guztiak (34/2023 Dekretua, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloan unibertsitate-tituludunak prestatzeko beka arautzen dituen).

ADIERAZTEN DUT egunean ditudala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere.

ADIERAZTEN DUT eskaeran eta eskabideari erantsitako gainerako dokumentazioan aipatzen den informazioa egiazkoa dela eta errealitateari erantzuten diola.

ADIERAZTEN DUT aurretik ez naizela beka horien edo unibertsitate-titulua duten pertsonentzako beste prestakuntza-beka batzuen onuraduna izan, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura.

ADIERAZTEN DUT ez dudala administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, zehapenean ezarritako epean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Lekua eta data

Sinadura

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OINARRIZKOA

Zure datu pertsonalak erabili egingo dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: «Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren eremuko prestakuntza-bekak».

– Arduraduna: Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza, Lehendakaritza

– Helburua: Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren arloko prestakuntza-beken programaren barruan egindako beken eskabideak kudeatzea eta izapidetzea.

– Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko. (RGPD Art. 6.1.c)

Tratamendua beharrezkoa da misio bat betetzeko, zeina egiten baita interes publikoaren izenean, edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzeko. (RGPD Art. 6.1.e)

– Hartzaileak:

Foru-aldundiak

Kontrol Ekonomikoko Bulegoa

– Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere (www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/).

– Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/158700-capa2-eu.shtml

– Araudia:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra
(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)